

## GIL 110 Markinezeko pinakuluak



Eliza erromanikoaren ondoan dagoen pinakuluetako bat.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 42' 28,06 " N

Long.: 2° 33' 32,05" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 536.123,11 m

Y: 4.728.461,02 m



### Nola iritsi

Argantzundik Kanpezura doan errepidean joanda (CL-127), Armentiako Bentak herrixkatik 8 km ekialdera dagoen bidegurutze batean, bide bat ateratzen da iparralderantz, Markinezera. Arluzearrantz doan errepidetik eta herritik SE-rantz ateratzen den bidetik ikus daitezke pinakuluak.



Pinakulurik "sendoenetako" bat.

## GILaren deskribapen laburra

Paleozenoko kareharri eta dolomien gainean garatutako pinakulu-multzo bat da. Loderira txikiko pakete bat da; 20 m inguru, gehienez ere. Bi tarteren artean kokatuta dago: azpian, Maastrichtiarreko hareharri karedunak eta, gainean, Thanetiarreko kalkarenita tupatsuak. Higadura diferentzialari erantzunez, Paleozenoko kareharrietan, disolbagarriagoak direnez, karstifikazio bizi bat gertatu da, zeinak, azkenik, tamaina handiko prisma errektangularrak bakartu baititu. (20 x 20 x 20 m).

Markinezko pinakuluak bi sailetan lerrokatuta daude, nagusiki: batek herriaren ibar nagusiarri jarraitzen dio, ipar-ekialderantz; bestea, berriz, zeharkako ibarrari, NW-SE norabidean. Lerrokatze horiek oso ikusgarriak dira. Pinakulu batzuetan, haitzulo eremitikoak daude, Goi Erdi Aroan zulatuak. Pinakuluak horma nagusitik gutxi gorabehera 5-10 m berezita daude.

## Behatzeko punturik onena

Herriaren NE-ko irteeran dagoen eliza erromanikoaren ingurua.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 47, GIL 113, GIL 150.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 109.



Basoko zuhaitzen artean gailentzen den pinakulu bat.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b> Pinakuluetan zulatutako haitzulo eremitikoak daude, eta eliza erromaniko eder bat dago pinakuluak ikusteko egokiena den alderdian.					
<b>Oharrak:</b>					